Dronen munduak erakartzen bazaitu eta nola funtzionatzen duten jakin nahi baduzu, zatoz “Dronak diseinatu eta erabiltzea” tailerrera, Kirol eta Gazteria Zerbitzuak **azaroaren 12rako (larunbata) Artikako Artigune III**n antolatua. **12tik 16 urtera** bitarteko gazteentzat da, eta lekuak mugatuak dira (erroldatuek izanen dute lehentasuna). **Izena azaroaren 2tik 9ra eman behar da**, zure datuak helbide honetara bidaliz: **deporteyjuventud@berrioplano.es**.
Tailerraren zati bat teorikoa izanen da, eta bestea, praktikoa. Lehenbizikoan, dronei buruzko informazioa emateaz gain, nola funtzionatzen duten eta zertan erabiltzen diren azalduko da.
Diseinuari eta muntaketari dagokienez, gazte parte-hartzaileek beren drona eginen dute, laser mozketa eta 3D inprimaketa erabiliz. Drona egindakoan, etxera eramanen dute.
Azkenik, saio praktikoan, parte-hartzaileek beren dronak gidatzen ikasiko dute, oztopo-zirkuitu bat erabiliz.

## GAZTE KANPALDIA / CAMPAMENTO JUVENIL







# 24 gaztek Zendea konkistatu zuten

# 24 jóvenes conquistaron la Cendea

“Zendearen konkistatzailea” gazte kanpaldia goraino bete zen. Izan ere, 24 gaztek parte hartu zuten abuztuaren 22tik 26ra udako abenturarik handienean. Jolasak eta probak egiteaz gain (ginkanak, proba fisikoak, orientabidea, tirolinak...), parte-hartzaileek elkarrekin bizitzen ikasi zuten, bai eta Zendeaz nahiz bertako paisaiez gozatzen ere, alde batetik bestera ibili bitartean. Datorren urtean, gehiago eta hobeki!

El campamento juvenil “El Conquistador de la Cendea” volvió a colgar el cartel de “plazas agotadas”. Un total de 24 jóvenes participaron del 22 al 26 de agosto en la aventura por excelencia del verano. Además de realizar juegos y pruebas de superación (gymkhanas, pruebas físicas, orientación, tirolinas...), los y las participantes aprendieron a convivir y a disfrutar de la Cendea y sus paisajes mientras la recorrían.
El año que viene, ¡más y mejor!

## II EDICIÓN / II. EDIZIOA



### El Día de la Juventud, el 22 de octubre

La **pista deportiva de Artica** acogerá todas las actividades organizadas para el II Gazte Eguna o Día de la Juventud, excepto la sesión de paintball, que tendrá lugar a partir de las 11:30 en **Loza**. A las 14:30 se celebrará la comida autogestionada de cuadrillas en la carpa instalada en la pista deportiva de Artica y, tras el almuerzo, gymkhana de cuadrillas de entre 3 y 5 personas que tendrá como premio ¡una pata de jamón! Para participar bastará con apuntarse en el momento.
Por la tarde, más actividades desde las 17:30 para mayores de 12 años: circuito wipe out, barredora y pista americana de hielo. A partir de las 19:00, kalejira con Batuklang y de 21:30 a24:00, música a cargo de DJ´Mikel Lizarbe.

### Gazte Eguna, urriaren 22an

Hamaika ekitaldi antolatu dira II. Gazte Egunerako eta guztiak **Artikako kirol pistan** eginen dira, paintball saioa izan ezik, **Lotzan** jokatuko baita 11:30etik aitzina. Gero, 14:30ean, koadrilak bazkarian bilduko dira, nork bere janaria eramanda, Artikako kirol pistan ezarritako karpan. Ondotik, ginkana, koadrilaka, 3tik 5 lagunera bitarteko taldetan banaturik. Saria, urdaiazpiko ederra izanen da! Parte hartzeko, aski da une horretan bertan izena ematea.
Arratsaldean, 17:30etik aurrera, bestelako ekitaldiak, 12 urtetik gorakoentzat: wipe out zirkuitua, barredora eta izotzezko pista amerikarra. 19:00etik goiti, kalejira, Batuklang-ekin eta, 21:30etik 24:00etara, musika DJ´Mikel Lizarberen eskutik.

## LEHIAKETAK / COMPETICIONES

# Añezkarren eta Artikan jokatutako herri lasterketen arrakasta

Ezkidiko Krosa egin da aurten lehen aldiz; joan den irailaren 25ean, zehazki, noiz eta Zendearen Eguna ospatu zen asteburuan. 270etik gora lasterkari aritu ziren probetan. Lehen edizioa Javier Nagorek eta Olatz Etxeberriak irabazi zuten. Giro ona eta mendi bazter ederrak nabarmendu behar dira (Añezkar eta Larrageta arteko bideak eta Ezkidi mendiko magalak), bai eta elkartasuna ere, aurtengoan ANAIF elkartearekin (Haurrei eta Familiari Laguntzeko Nafarroako Elkartea).
Bestalde, Mikel Fernándezek eta Virginia Magdalenok Artikako V. herri lasterketa irabazi zuten, joan den irailaren 4an. Artikako Korrikolaris klubak antolaturik eta herriko jaien egitarauan sarturik, 200 lasterkari aritu ziren. Ibilbideak 7,5 km izan zituen, eta Artika Berriko María Domínguez plazatik abiatu, Berriozar inguratu, Artikara jo eta abialekura itzuli zen, María Domínguez plazara, alegia.



# Éxito de las carreras populares disputadas en Añézcar y Artica

La primera edición del Cross de Ezkidi, que se celebró el pasado 25 de septiembre coincidiendo con el fin de semana del Día de la Cendea, reunió a más de 270 corredores en las distintas pruebas organizadas. Javier Nagore y Olatz Etxeberria se proclamaron ganadores de esta primera edición. El buen ambiente y el bello entorno natural por el que discurrió la carrera (caminos entre Añézcar y Larragueta y las faldas del monte Ezkidi) fueron los grandes protagonistas de esta cita deportiva que también tuvo un carácter solidario, en este caso, con ANAIF (Asociación Navarra de Apoyo a la Infancia y la Familia).
Por otro lado, Mikel Fernández y Virginia Magdaleno se proclamaron vencedores de la categoría absoluta de la V Carrera Popular de Artica que se celebró el pasado 4 de septiembre. La prueba, organizada por el club Korrikolaris de Artica e incluida en la programación de fiestas de la localidad, reunió a 200 corredores. Los ganadores completaron con éxito 7,5 km de recorrido que arrancaron en la plaza María Domínguez de Nuevo Artica, bordearon Berriozar para dirigirse a Artica pueblo y regresar al punto de partida, la plaza María Domínguez.

## CURSOS / IKASTAROAK

### Aumentan las inscripciones

Los cursos municipales siguen teniendo mucho tirón. Este año se han registrado 480 inscripciones, frente a las 415 de 2021. Entre las actividades dirigidas a personas adultas, destaca el yoga. En Artica, debido a la gran demanda, se ha creado un nuevo grupo. Las clases de pilates que se ofertan en Artica también han tenido muy buena aceptación y en la gimnasia activa +55 años se han tenido que duplicar las plazas y formar un nuevo grupo. En cuanto a las actividades infantiles, la escalada ha sido un año más la favorita para los más txikis.




### Jende gehiagok eman du izena

Iaz bezala, udal ikastaroek harrera oso ona izan dute aurten, 480 lagunek eman baitute izena. Iaz, aldiz, 415ek. Helduendako jardueren artean, yoga da nabarmentzekoa. Artikan, jende aunitzek eskatu duenez, talde berria sortu da. Artikan eskainitako pilates saioek ere oso harrera ona izan dute; eta 55+ gimnasia aktiboan, lekuak bikoiztu eta talde berri bat sortu behar izan da. Haurrendako jardueren artean, aurten ere eskalada izan da gogokoena.

**ZENDEAK SENIDETASUNEZKO JAIA OSPATU ZUEN**
**FIESTAS PATRONALES Y DÍA DE LA CENDEA**



RIOPLANO INFORMA / BERRIOBEITIko AHOTSA







# Zendeak senidetasunezko jaia ospatu zuen

Zendearen Eguna ez da ospatzerik izan pare bat urtez, baina aurten indarrean itzuli da. Izan ere, udalerriko hamar herriak Añezkarren elkartu ziren joan den irailaren 24an, ekitaldiz beteriko eguna ospatzeko. Haizaldi taldeko gaiteroek dianak jo ondoren, hamaika ekitaldi etorri ziren: haien artean artisautza azoka, Ametza Abesbatzaren kontzertua, Zigoitiko Mairu abesbatza (Araba) gonbidaturik zegoela, eta pilota partidak. Horrela, Añezkarko pilotalekuan, Arretxe eta Goñi 22 eta 20 nagusitu zitzaizkien Azanzari eta Oinatz Bengoetxea Leitzako pilotari erretiratu berriari, emozio handiko partida lehiatuan. Bestalde, Zendeako fanfarreak, txistulariek eta gaiteroek lagundurik, Artikako eta Berriobeitiko konpartsak karrikadantzan aritu ziren goizean, bazterrak ederki giroturik. Ondoren, pilotalekuan, urtero egiten den herri bazkarian, 243 txartel saldu ziren (211 heldu eta 32 haur).
Bazkalondoren, berriz, umorea erruz, Kike Biguri bakarrizketen eskutik, eta besta giro ederra, musikan blai. Izan ere, lehenik, Voces del Mundo eta Chuchín Ibáñez & Garibaldi Band Taldea aritu ziren, eta gero, DJ Ino, jende guztia kantari eta dantzari jarrita.
Arratsaldean ere haurrendako ekitaldiak egin ziren, hala nola jolasak, dantzak eta zezen gurpildunen entzierroa. Haurrek ederki gozatu zuten, bai eta hain txikiak ez direnek ere.

# La Céndea celebró su fiesta de hermandad

Después de dos años sin celebración del Día de la Cendea, los vecinos y vecinas de los diez pueblos del municipio vivieron el pasado 24 de septiembre en Añézcar una jornada festiva llena de actividades que arrancó con dianas a cargo de los gaiteros de Haizaldi. Por la mañana, la feria de artesanía, el concierto de la Coral Ametza con la coral invitada Mairu de Zigoitia (Álava) y el partido de pelota fueron los grandes atractivos del programa. El frontón de Añézcar fue testigo de un emocionante y disputado partido en el que Arretxe y Goñi se impusieron 22-20 al recién retirado pelotari de Leitza Oinatz Bengoetxea y a Azanza. Tras disfrutar de un animado pasacalles a cargo de las comparsas de Artica y Berriosuso, acompañados de los txistularis y gaiteros y la Fanfarre de la Cendea, vecinas y vecinos se reunieron en el frontón para celebrar la tradicional comida popular, para la que este año se vendieron 243 tickets (211 adultos y 32 infantiles).
El almuerzo dio paso a una sobremesa con tintes de humor gracias a los monólogos de Kike Biguri, y con mucha música. Voces del Mundo y de Chuchín Ibáñez & Garibaldi Band Taldea, primero, y el DJ Ino, después, consiguieron arrancar las mejores voces y bailes de las personas congregadas.
Toda la tarde hubo animación infantil con juegos, bailes y encierricos con el torico de ruedas. Disfrutaron los más txikis... y los no tan txikis.



# Vuelta a la normalidad festiva

# Jaiak berriz ere ohiko moldean













Este año los pueblos de la Cendea han recuperado sus tradicionales fiestas patronales. Conciertos, bailes, toros de fuego, teatro, kalejiras, campeonato de mus y de pelota, y disfraces, en algunos casos. Las programaciones festivas de todos los municipios han incluido actividades para todos los gustos y públicos. El resultado, un verano para disfrutar con amigos y familia y dejar atrás la pandemia.

Aurten, Zendeako herriek ohiko moldean ospatu dituzte herriko festak. Beraz, denetarik izan da: kontzertuak, dantzaldiak, zezensuzkoak, antzerkia, karrikadantzak, mus eta pilota txapelketak eta, zenbait tokitan, mozorroak. Herri guztietako jai egitarauetan gustu, adin eta jende guztiarendako ekitaldiak izan dira. Emaitza uda aproposa izan da lagunekin eta etxekoekin gozatzeko, pandemia atzean utzi dugun honetan.

## PARA TODA LA FAMILIA / FAMILIA GUZTIARENTZAT



# Circo, cuentos teatralizados y espectáculo para bebés

# Zirkua, ipuin antzeztuak eta umetxoendako ikuskizuna

Este otoño el público infantil va a poder disfrutar de una variada oferta cultural. La primera cita llegará el **domingo 23 de octubre** en la **Casa de Cultura María de Maeztu** con "Los viajes de Bowa", el circo contemporáneo de **La Gata japonesa**. Esta representación, de acrobacia aérea, humor y poesía, es una de las propuestas del ciclo SendaberrI, Nuevos Paisajes Escénicos-Paisaia eszeniko berriak, de la Red de Teatros de Navarra. Durante 55 minutos, el público podrá seguir las peripecias de Bowa, una nómada soñadora que, tras encontraren el mar una botella con un mensaje, decide emprender la búsqueda de la persona que la lanzó. Tras la puesta en escena habrá un coloquio.

La segunda propuesta llegará de la mano de **TDiferencia**, que ofrecerá cuentos teatralizados en euskera para niños y niñas de entre 5 y 12 años el **domingo 6 de noviembre** en el **Edificio Multiusos de Berrioplano**. El espectáculo "Historiko nago!", que es gratuito, sacará a la luz la historia y méritos de mujeres matemáticas, historiadoras, científicas o escritoras, borradas durante años por el machismo.

### Diversión para bebés

La última cita cultural está dirigida a los bebés. **Aboon Teatre** llegará el **sábado 19 de noviembre** a la **Casa de Cultura María de Maeztu** con "Baby esferic", un divertido viaje para niños y niñas de entre 6 meses y 3 años que es un homenaje a la Tierra. Sin texto y con un lenguaje muy visual, la protagonista de esta obra es una esfera blanca que va transformándose a lo largo de los 30 minutos que dura el espectáculo. Habrá dos pases, a las 17:00 y a las 18:30, y la entrada será gratuita previa retirada de invitación en www.berrioplano.es o en taquilla. Después de la función habrá quince minutos para disfrutar de un espacio de juego.





Udazken honetan, haurrek kultur eskaintza oparoa gozatzeko aukera izanen dute. Lehen hitzordua **urriaren 23an** izanen da **María de Maeztu Kultur Etxean**, **La Gata japonesa** zirku garaikideak "Los viajes de Bowa" emanen baitu. Aireko akrobaziak, umorea eta poesia uztarturik, "Sendaberri Paisaia eszeniko berriak" ziklo barruko proposamenetako bat da, Nafarroako Antzoki Sareak antolaturik. 55 minutuz, publikoak Bowa nomada ameslariaren gorabeherak ikusiko ditu. Itsasoan botila mezudun bat aurkitu ondoren, botila itsasora bota zuen pertsonaren bila hasiko da. Emanaldiaren ondotik solasaldia izanen da.

Bigarren proposamena **TDiferencia**-ren eskutik iritsiko da, euskarazko ipuin antzeztuak emanen baititu doan 5etik 12 urtera bitarteko haurrentzat, **azaroaren 6an**, igandearekin, **Berriobeitiko erabilera anitzeko** eraikinean. "Historiko nago!" lanak emakume matematikari, historialari, zientzialari eta idazleen istorioak eta merezimenduak aterako ditu argira, guztiak ere matxismoak urtetan ezabatuak.

### Umetxoendako dibertsioa

Azken hitzordua umetxoendako da. **Aboon Teatre** taldeak "Baby esferic" lana emanen du **María de Maeztu Kultur Etxean**, **azaroaren 19an**, larunbatarekin, hots, bidaia jostagarria da 6 hilabetetik 3 urtera bitarteko umeentzat, Lurra omentzeko. Testurik gabe, eta arras hizkuntza bisuala erabiliz, obraren protagonista (esfera zuri bat) eraldatzen joanen da ikuskizunak irauten duen 30 minutuan. Bi saio emanen dira, 17:00etan eta 18:30ean, eta sarrera doakoa izanen da, aurrez gonbidapena www.berrioplano.es webean edo leihatilan hartuta. Emanaldiaren ondotik, hamabost minutu izanen dira jolasgune batean jostatzeko.

## 2023KO EGUTEGIA / CALENDARIO 2023

### III. argazki lehiaketa

Berriobeitin erroldatua bazaude, 16 urtetik gorakoa bazara eta argazkia gustuko baduzu, har ezazu parte Udalak antolaturiko lehiaketa honetan. Lan irabazleek 2023ko udal egutegia ilustratuko dute. Egutegia doan banatuko da bizilagunen artean. Gainera, 50 euroko hamabi sari banatuko dira.

Gaia hauxe da: "Zendeako hamar herrietako bizitza edo paisaiak". Epea azaroaren 4an bukatuko da (14:00ak arte, Udaletxean). Oinarri guztiak: **www.berrioplano.es**.




### III Concurso de fotografía

Si estás empadronado/a en Berrioplanano, eres mayor de 16 años y te gusta la fotografía, participa en este certamen que organiza el Ayuntamiento. Las obras ganadoras ilustrarán el calendario municipal de 2023 que se distribuirá de forma gratuita entre el vecindario. Además, habrá doce premios de 50 euros.

El tema es "vida o paisajes de los diez pueblos de la Cendea". El plazo finaliza el 4 de noviembre (hasta las 14:00 en el Ayuntamiento). Bases completas en **www.berrioplano.es**.

## VIAJES / BIDAIAK

### Regresan las excursiones para personas jubiladas y desempleadas

Tras los años sin salidas a causa de la pandemia de la Covid-19, el área de Cultura ha vuelto a organizar una excursión para personas jubiladas y desempleadas, en esta ocasión, una visita guiada a las **Bardenas Reales** el **22 de octubre**.

Las personas interesadas en apuntarse a la excursión deben llamar al teléfono 948 012 012 (012-Infolocal) los días 14, 17 y 18 de octubre.

### Erretiratuendako eta langabeendako bidaiak itzuli dira

Cobid-19aren pandemiaren ondorioz, bi urtez ez da ateraldirik egin. Orain, ordea, Kultura Alorrak txango bat antolatu du berriz ere erretiratuendako eta langabeendako; oraingo honetan, **urriaren 22a**n, **Errege Bardea** gida batekin ikusteko. Izena eman nahi dutenek 948 012 012 (012-Infolokal) telefonora deitu behar dute, urriaren 14an, 17an edo 18an.



# Azaroa proposamenez beterik heldu da

# Noviembre llega cargado de propuestas




Musika izanen da azaroan ardatz nagusia **María de Maeztu Kultur Etxeko** kultur hitzorduetan. Lehen ekitaldia **azaroaren 4an** izanen da, 19:30ean, **Alfredo eta Iker Piedrafita**ren eskutik. Saioaren hasieran, Alfredo Piedrafitak "Del ruido al silencio. Bicheando por Ezcaba" liburua aurkeztuko du. Argitalpenean bildu dira Alfredok berak Ezkaba mendiko natur ingurunean egindako ehun argazki baino gehiago. Aditua da faunari bere habitatean argazkiak ateratzen. Helburu nagusia izan da Iruñerriko hain mendi adierazgarrian dagoen espezie aberastasuna eta oparotasuna ezagutzera ematea. Liburua aurkeztu eta gero, Alfredo eta Iker Piedrafitak kontzertu akustikoa emanen dute. Jarduera doakoa da, gonbidapena aurrez **www.berrioplano.es** webean edo **leihatilan** hartuta.

Azaroko bigarren asteburuan bi musika proposamen izanen ditugu. **Hilaren 11n**, **Rondalla Armonía**k jende guztiarendako kontzertua emanen du, 19:00etan; eta **hilaren 12an**, **larunbata**rekin, **Suakaik**, berriz, "Top 10 Sarasate" izeneko lana. Taldearen ikuskizunik intimoena da, hots, bidaia zoragarria da Pablo Sarasateren melodiarik eragintsuenak erakusteko. Errepertorioa artaz aukeratu eta moldatu da biolontxelorako eta gitarrako. Emaitza kontzertu hurbila eta xarmaduna da. Publikoa borobilean jarriko da agertokiaren gainean eta, erdigunean, berriz, biolontxelo eta gitarra bana melodiak errezitatzen, soinurik garbienak eta biluzienak emateko, ikusleak folklorerik aitortuenetik Europako aretorik jasoenetara eramateko
Ikuskizuna **19:00**etan hasiko da.

La música será en noviembre la gran protagonista de la agenda cultural de la **Casa de Cultura María de Maeztu**. La primera cita es el **viernes 4 de noviembre** a las **19:30** de la mano de **Alfredo e Iker Piedrafita**. La sesión comenzará con la presentación, por parte de Alfredo Piedrafita, del libro "Del ruido al silencio. Bicheando por Ezcaba", una publicación que recoge un centenar de imágenes realizadas por el propio Alfredo en el entorno natural del monte Ezkaba/San Cristóbal. Especialista en fotografiar la fauna en su propio hábitat, su principal objetivo ha sido dar a conocer la riqueza y variedad de especies que se pueden llegar a encontrar en este monte tan significativo de la Cuenca de Pamplona. Tras la presentación del libro, Alfredo e Iker Piedrafita ofrecerán un concierto acústico. Actividad gratuita previa retirada de invitación en **www.berrioplano.es** o **taquilla**.



El segundo fin de semana de noviembre llegará con dos propuestas musicales. El **viernes 11 Rondalla Armonía** ofrecerá un concierto para todos los públicos a las **19:00;** y el **sábado 12** de noviembre **Suakai** ofrecerá "Top 10 Sarasate", su espectáculo más íntimo: un viaje apasionante por las melodías más influyentes de Pablo Sarasate. El repertorio, cuidadosamente seleccionado y arreglado para violonchelo y guitarra, desemboca en un concierto cercano y con encanto.
El público, en círculo sobre el escenario, y, en el centro, un violonchelo y una guitarra recitando melodías desde los sonidos más puros y desnudos, que trasportarán a los y las presentes desde el folklore más reconocido a los más elevados salones europeos.
El espectáculo comienza a las **19:00**.



# Voces letonas de la mano de Maska Koris

# Maska Koris, Letoniako ahotsen emanaldia

Berrioplano se une un año más al Ciclo Coral Internacional de Navarra que organiza el Gobierno de Navarra en colaboración con la Federación de Coros de Navarra. El viernes **28 de octubre** el grupo **Maska Koris**, de Babite (Letonia), ofrecerá un concierto a las **20:00** en la **Casa de Cultura María de Maeztu, Artica**. Este coro mixto letón, uno de los mejores del país, fue fundado en 2000 por el director de orquesta y director artístico Janis Ozols. Además de abordar el repertorio clásico, es un coro que suele introducir innovaciones creativas. **Entrada gratuita**, previa retirada de invitación en **www.berrioplano.es** o **taquilla**.

Aurten ere, Berriobeitik bat egin du Nafarroako Nazioarteko Abesbatza Zikloarekin. Nafarroako Gobernuak antolatzen du, Nafarroako Abesbatza Elkartearekin elkarlanean. **Urriaren 28an**, ostirala, Babite udalerriko **Maska Koris** abesbatzak (Letonia) kontzertua emanen du **20:00**etan, **Artikako María de Maeztu Kultur Etxean.** Letoniako abesbatza mistorik onenetakoa da. Janis Ozols orkestra-zuzendari eta zuzendari artistikoak 2000. urtean sortua, errepertorio klasikoa jorratzeaz gain, sorkuntza-lan berritzaileak ere eman ohi ditu. **Sarrera doakoa** da, gonbidapena aurrez **www.berrioplano.es** webean edo leihatilan hartuta.

## APOYO A LAS FAMILIAS / FAMILIENDAKO LAGUNTZA

# Talleres de juegos, consejos y una exposición de juguetes

El ciclo organizado por el Servicio de Euskera "Familia+Euskara" regresa del 25 de octubre al 23 de noviembre. Se trata de un programa de actividades dirigido a las familias que, sabiendo euskera o no, necesitan ayuda para acompañar a sus niños/as pequeños/as en el proceso de aprendizaje de euskera en el contexto sociolingüístico en el que vivimos.

Euskara Zerbitzuak antolatutako "Familia+Euskara" zikloa urriaren 25etik azaroaren 3ra itzuliko da. Familia euskaldunendako eta erdaldunendako jarduerak dira, seme-alabei euskara ikasteko prozesuan lagun egiteko, betiere gu bizi garen egoera soziolinguistikoan.

CICLO Familia+ Euskara

# Jolas tailerrak, aholkuak eta jostailu erakusketa

La agenda municipal buzoneada por el Ayuntamiento informa de los horarios y la localización de los actos del programa

Udalak etxez etxe banatutako udal agendan programako ekitaldien berri eman da, ordutegiak eta kokapenak zehaztuta.



Todas las actividades serán impartidas por Fundación Dindaia, a excepción del taller sobre tareas escolares, a cargo de Iñaki Eizmendi

Jarduera guztiak Dindaia Fundazioak emanen ditu, eskolako lanei buruzkoa izan ezik, hizlaria Iñaki Eizmendi izanen baita.

**- Taller "Cómo afrontar el bilingüismo"**
Taller dirigido a las familias de los más peques (de 0 a 2 años), en el que se ofrecerán las claves para ayudarles en su camino al bilingüismo en la primera fase de sus vidas. Está especialmente dirigido a familias en las que el euskera no es la lengua principal. La cita, el **martes 25 de octubre** en **Artica**.

**- Juegos en euskera para toda la familia**
Dirigido a familias con niños/as de 3 a 7 años, se van a ofrecer dos talleres para aprender y practicar juegos en familia, el **lunes 7 de noviembre en Berrioplano** y el **miércoles 16 de noviembre el Artica**.



Todas las actividades son gratuitas con preinscripción en el **948 012 012**

Jarduera guztiak doakoak dira, aurrez **948 012 012**an izena emanda

**- Tailerra: "Nola aurre egin elebitasunari?"**
Haur txikienen familiei zuzendua dago (0tik 2ra urte bitartekoak), bizitzaren lehen fasean elebitasuneranzko bidean laguntzeko gakoak azaltzeko. Euskara hizkuntza nagusia ez den familiendako da bereziki. Hitzordua **urriaren 25a, asteartea, Artikan**.

**- Euskarazko jolasak familia guztiarentzat**
Bi tailer eskainiko dira 3tik 7urtera arteko haurrak dituzten familiendako, jolasak familiartean ikasi eta jostatzeko. Lehena, **azaroaren 7an, astelehenarekin, Berriobeitin** da, eta bigarrena, berriz, **azaroaren 16an, asteazkenarekin, Artikan**.

**- Taller sobre las tareas escolares**
Por otro lado, el **miércoles 9 de noviembre**, en **Artica**, Iñaki Eizmendi (EBETE) nos dará claves para ayudar en las tareas escolares si no sabemos euskera.

**- Exposición de juguetes**
El ciclo concluirá con una exposición en la **Casa de Cultura María de Maeztu del 21 al 23 de noviembre**, en la que se presentará una amplia colección de juegos y juguetes en euskera que existen en el mercado.





**- Eskolako lanei buruzko tailerra**
Bestalde, **azaroaren 9an (asteazkena), Artikan**, Iñaki Eizmendik (EBETE) hainbat gako emanen dizkigu haurrei eskola lanetan laguntzeko, euskaraz ez badakigu.

**- Jostailu erakusketa**
Zikloa bukatzeko, euskarazko jolas eta jostailu bilduma zabala jarriko da ikusgai **azaroaren 21etik 23ra María de Maeztu Kultur Etxean**, guztiak ere merkatuan daudenak.

# OSASUN SALUD

## EUSKARAREN SUSTAPENA / PROMOCIÓN DEL EUSKERA

# ¡Participa en la tercera edición!

# Parte hartu hirugarren edizioan!

Euskaraldiaren hirugarren edizioa **azaroaren 18tik abenduaren 2ra** eginen da. Berriobeitiko Udala lankidetzan arituko da dinamika sozial horrekin, euskaraz dakitenak edota ulertzen dutenak euskaraz komunikatzera bultzatzeko. Azken buruan, euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan hitz egitea.

Ekimenak iraunen duen 15 egunean, parte-hartzaileek txapa bana eramanen dute agerian, *Ahobizi* edo *Belarriprest* ote diren jakiteko.

Halaber, Ariguneak izeneko guneak ezarriko dira denda, enpresa eta beste erakunde batzuetan, jendeak nahi badu euskaraz egin dezan. Zendeako hainbat erakundek *Arigunea* izanen dute.

La tercera edición de Euskaraldia se celebrará del **18 de noviembre al 2 de diciembre**. El Ayuntamiento de Berrioplano colabora con esta dinámica social, la cual busca que personas que saben y/o entienden euskera se animen a comunicarse en esta lengua. En definitiva, que el euskera ocupe un lugar cada vez más amplio en nuestros hábitos lingüísticos y en nuestras prácticas lingüísticas.

Durante los 15 días que dura esta iniciativa, las personas participantes portarán una chapa que les identificará como *Ahobizi* o como *Belarriprest*, y habrá espacios identificados como *Arigunes* (comercios, empresas y otras entidades), espacios donde las personas que así lo deseen podrán expresarse en euskera. En la Cendea tenemos varias entidades inscritas como *Arigunes*.

## MINTZAKIDE

### Mintzamena landu beharra duzu?

Euskaraz norekin hitz egiterik ez baduzu, emazu izena Mintzakiden. Ekimenean, euskaraz ongi moldatzen diren eta hitz egiteko ohitura duten pertsonak eta euskaraz hobeki ikasi behar dutenak edo mintzamena landu nahi dutenak biltzen dira. Izena emateko epea urriaren 31ra arte egonen da zabalik. Badago aldaera bat, **Parkelagun**, haur txikiak dituztenei zuzendua. Urtarrilean, izena emateko epea ere irekiko da. Argibideak, Euskara Zerbitzuan (**948 30 31 29**).




### ¿Necesitas practicar euskera?

Si no tienes con quién hablar euskera, apúntate a Mintzakide, un programa que reúne a personas que saben euskera y están habituadas a hablarlo con personas que necesitan o quieren practicarlo. El plazo de inscripción ya está abierto y se prolongará hasta el 31 de octubre. Existe otra variante, **Parkelagun**, dirigida a personas que tienen hijos/as pequeños/as. En enero se abrirá un nuevo plazo de inscripción. Más información en el Servicio de Euskera (**948 30 31 29**).

## CURSOS DE EUSKERA / EUSKARA IKASTAROAK

### Un grupo en Artica

Este curso se ha formado un grupo de nivel A2-B1 para aprender euskera en Artica. ¡Estás a tiempo de apuntarte llamando al **948 300 602**.

¡ANÍMATE!

### Talde bat Artikan

Ikasturte honetan, A2-B1 mailako talde bat osatu da Artikan euskara ikasteko. Garaiz zabiltza izena emateko. Deitu **948 300 602**ra.

EMAZU IZENA!

## OSASUN ETXEA / CENTRO DE SALUD

# Gripearen txertoa eta COVID-19aren errefortzua

Joan den urriaren 10etik, epea irekia dago 60 urtetik gorakoek hitzordua eskatzeko, dela gripearen aurkako txertoa jasotze aldera, dela COVID-19aren errefortzu dosia jartze aldera (gomendatutako kasuetan, betiere). Bost hilabete baino gehiago igaro behar izan dira azken dositik edota gaitza hartu zenetik.

Immunosupresioa duten 80 urtetik gorako herritarrei dagokienez, gomendioa da hiru hilabete baino gehiago igaro izana birusa hartu zenetik, eta bost hilabete, azken dositik.

Bi txertoak jartzeko hitzordua eskatzeko prozedura berbera izanen da, hau da, lehentasunez internet bidez edota Osasun Karpeta Pertsonalaren bidez **www.citasalud.navarra.es** webean, **citas.vacunacion@navarra.es** helbidera mezua bidaliz edo telefonoz (**948 370 130**).

**Doako tailerrak Iruñean**

Aurrez izena emanda (**848 423 450**, **escueladesalud.navarra.es**)

- **Osasunez zahartzea:** azaroak 7, 9, 14 eta 16, 17.00etatik 19:00etara, Iruñeko Gurutze Gorrian.
- **Erretzeari uzteko laguntza (telepresentziala):** urriak 27, azaroak 8, 15 eta 30, eta urtarrilak 10 (17:00 - 19:00).
- **Hazkuntza positiboa (6-12 urte):** azaroak 3 eta 10, 17:00etatik 19:00etara, Nafarroako Osasun Publikoaren Institutua.

# Vacunas de la gripe y refuerzo de la COVID-19

Desde el pasado 10 de octubre, la población mayor de 60 años puede solicitar una cita para recibir la vacuna de la gripe y la de la dosis de refuerzo del COVID-19 (en los casos recomendados). Deben haber transcurrido más de cinco meses desde la última dosis o cinco desde haber contraído la infección.

En cuanto a la población mayor de 80 años y personas con inmunosupresión, se recomienda que hayan pasado más de tres meses desde la infección del virus, y cinco meses desde la última dosis.

Para la inoculación de ambas vacunas, el procedimiento para solicitar cita será el mismo: preferentemente por internet, a través de Carpeta Personal de Salud, en **www.citasalud.navarra.es**; enviando un correo a **citas.vacunacion@navarra.es**; o telefónicamente (**948 370 130**).

**Talleres gratuitos en Pamplona**

Previa inscripción (**848 423 450**, **escueladesalud.navarra.es**)

- **Envejecer con salud:** 7, 9, 14, 16 de noviembre, de 17.00 a 19:00, en Cruz Roja Pamplona.
- **Ayuda para dejar de fumar (telepresencial):** 27 de octubre, 8, 15 y 30 de noviembre y 10 de enero (17:00 a 19:00).
- **Crianza positiva (6-12 años):** 3 y 10 de noviembre, de 17:00 a 19:00, Instituto de Salud Pública de Navarra.

## PATRIMONIO ARTÍSTICO / ARTE ONDAREA



La iglesia de San Esteban es un edificio gótico temprano (siglo XIII) levantado en piedra y restaurado en 1965. Consta de una nave, dividida en cinco tramos, cabecera poligonal de tres lados y torre campanario. A cada lado de la nave se sitúan sendas capillas cubiertas con bóveda de cañón apuntado. La Sacristía se encuentra adosada a la cabecera por el lado del evangelio.
De su antiguo retablo mayor renacentista (segunda mitad del siglo XVI) sólo quedan algunas imágenes en madera policromada repartidas por distintos lugares del templo; así sucede con San Esteban. Es digna de mención la pila bautismal en piedra, de copa agallonada y soporte gótico en forma de pilar con capitel de motivos vegetales estilizados, también de la segunda mitad del siglo XIII.
En 1951 fue sometida a una restauración. La bóveda y la parte sur del templo fue desmontado piedra por piedra.



### Iglesia San Esteban de Larragueta

### Larragetako San Esteban eliza

San Esteban eraikin gotiko goiztiarra da (XIII. mendea), harriz egina eta 1965ean zaharberritua. Nabe bat dauka, bost tartetan banatua, hiru aldetako burualdea eta kanpandorrea. Nabearen alde banatan, kapera bat dago, biak ere kanoi-ganga zorrotzarekin estaliak. Sakristia ebanjelioaren aldetik dago burualdeari atxikia.
Erretaula nagusi errenazentistako gauza gutxi gorde dira (XVI. mendearen bigarren erdikoa), hala nola zur polikromatuan egindako hainbat irudi, tenpluko hainbat tokitan banatuak, San Esteban bera barne. Harrizko bataiarria da aipatzekoa, hori ere XIII. mendearen bigarren erdikoa: buru galloitua du eta euskarri gotikoa; kapitelak, berriz, landa motibo estilizatuak ditu.
1951n, zaharberritu zuten. Bai ganga, bai elizaren hegoaldea, harriz harri desmuntatu zituzten.



## BERRIOBEITI ZENDEAKO KALEAK
## CALLES DE LA CENDEA DE BERRIOPLANO

### MARÍA VISCARRET (ARTIKA BERRI) / MARÍA VISCARRET (NUEVO ARTICA)



Leonor Akitaniakoa kalearen pareko errotondan hasi eta ipar ingurabideko biribilgune handian bukatzen da. María Viscarret euskaltzale iruindarra izan zen. Zapateria karrikan jaio zen 1907an eta, bost anaia-arrebaren artean, senide zaharrena izan zen. Iruñeko Lehen Irakaskuntzako Eskola Normalean irakasle-ikasketak egin eta diploma 1927an eskuratu zuen. Nafarroako hainbat herritan izan zen irakasle eta euskara heldutan ikasi zuen.
Hainbat alorretan nabarmendua, euskal irakaskuntza Iruñerrian bultzatzen aritu zen, batez ere. Horrela, beste euskaltzale eta kulturgile batzuekin batera, Euskararen Patronatua jarri zuen abian.
Gerra hastean, Lapurdira joan zen ihesi familiarekin batera, baina 1937an aita hil, eta Iruñera itzuli zen. Itzuleran, espedientea ireki eta irakaskuntza-lanetik bota zuten. Kondena bete ondoren, 1943an Erratzura bidali zuten maistra (Baztan) eta han aritu zen erretiratu arte. Ondotik, Iruñera itzuli eta 1989an hil zen.

Esta calle, que comienza en la rotonda situada a la altura de la calle Leonor de Aquitania y finaliza en la rotonda grande de la ronda norte, recibe el nombre de María Viscarret, profesora navarra y euskaltzale. Nació en 1907 en la calle Zapatería de Pamplona y era la mayor de cinco hermanos. Después de cursar estudios para ser maestra en la Escuela Normal de Enseñanza Primaria de Pamplona, consiguió el diploma en 1927. Fue docente en varios pueblos de Navarra y aprendió euskera siendo adulta.

Su actividad principal fue impulsar la enseñanza vasca en la comarca de Pamplona. Junto con otros profesores y culturistas abertzales, puso en marcha el Patronato de la Lengua Vasca.
Cuando comenzó la guerra, huyó con su familia a Iparralde, pero en 1937 su padre murió y volvió a Pamplona. A su regreso, le abrieron un expediente y fue apartada de su trabajo docente. Cumplida la condena, en 1943 fue enviada como profesora a Erratzu, donde permaneció hasta su jubilación. Tras retirarse, regresó a Pamplona. Murió en 1989.

Lotzako aintzirari buruzko argibideak:
http://balsadeloza.blogspot.com/
Más información sobre la balsa de Loza:
http://balsadeloza.blogspot.com/



## FAUNA

### SASI-TXINBOA

Sasi-txinboa hegazti diskretua eta ezkutua da, eta oso ongi kamuflatzen da aintzira barneko edo inguruko sasietan. Beste txinbo batzuek ere natur ingurunearekiko mimetismo hori dute. Hori dela eta, kantuaren bidez ezagutuko dugu. Eta txioa ohikoa izaten da ugalketa garaian; batere ez ohikoa, ordea, gainerako hilabeteetan.



Sasi-txinboa hegazti habiagilea da. Ez da oso ohikoa aintziran, baina nabarmena migrazio hilabeteetan. Lotzan, martxoaren bukaeratik edo apirilaren hasieratik aurrera urria hasi arte ikusiko dugu. Ez dago neguan. Migrazioak bi goren-une nabarmen ditu: batetik, apiril eta maiatzean, iparrerantz doala, Pirinioez iparraldean habia egiteko tokiak bilatzeko; bestetik, abuztuan eta irailean, hegoranzko migrazioan.

Oso nekez atzemanen diogu sasi-txinboari sasien artean, tamainaz txikia delako eta mimetismoa duelako. Dena dela, migratzaile handia da, eta populazio gehienek Sahara zeharkatu eta negua Saharaz hegoaldean ematen dute.

Udaberrian, intsektuak eta beste ornogabe batzuk jaten ditu batez ere, baina haren dietan badira fruitu mota asko eta bestelako landare-materialak uda bukaeran eta udazkenean. Habia sasietan egiten dute. Errunaldirik ohikoenak 4-5 arrautzakoak dira, 12 bat egunez txitatzen dituzte, beste horrenbeste egun behar dituzte hegan egiteko eta, 15-20, egun habiatik alde egiteko.

**Testua:** Ignacio Deán (Gorosti Natur Zientzi Elkartea) **Argazkia:** Gonzalo Deán

### LA CURRUCA ZARCERA

La curruca zarcera es un ave discreta y críptica que se camufla muy bien entre los matorrales dentro de la balsa o en su entorno. Ese mimetismo con el medio natural lo comparte con otras currucas y por ello su reconocimiento por el canto es importante. Y este es habitual en la época de reproducción, pero muy poco común el resto del año.

La curruca zarcera es un ave nidificante no muy común en la balsa, pero notable en los meses de migración. Se puede observar en Loza desde finales de marzo o comienzos de abril hasta el comienzo de octubre. Está ausente durante el invierno. Y se observan, claramente, dos picos migratorios claros en los meses de abril y mayo, en dirección norte, para buscar zonas de nidificación al norte de los Pirineos, y en agosto y septiembre, en su migración hacia el sur.

La discreta curruca zarcera, que apenas podemos identificar entre los matorrales debido a su pequeño tamaño y a su mimetismo, es, sin embargo, un gran migrador y la mayoría de sus poblaciones atraviesan el Sáhara y pasan el invierno en la zona subsahariana.

Se alimenta sobre todo de insectos y de otros invertebrados en la primavera, pero su dieta puede incluir una buena parte de frutos y otros materiales vegetales al final del verano y en el otoño. Nidifican entre los matorrales. Las puestas más normales son de 4-5 huevos que son incubados unos 12 días y necesitan otros tantos para volar, y unos 15-20 para independizarse.

**Texto:** Ignacio Deán (Sociedad de Ciencias Naturales Gorosti) **Fotografía:** Gonzalo Deán

## Consulta tus dudas sobre el gas y la luz en la Oficina del Consumidor

Con la llegada del otoño y ante la continua escalada del precio de la luz y del gas, son muchas las personas que tienen dudas sobre sus tarifas y sobre las alternativas que ofrece el mercado. Una de las mejores opciones para resolverlas es acudir a la Oficina del Consumidor Irache, que lleva más de 20 años trabajando con el Ayuntamiento de Berrioplano. Ricardo Areta, asesor jurídico encargado de atender todas las reclamaciones, dudas y gestión de casos, atiende al público en el propio ayuntamiento el segundo y último lunes de cada mes (con excepción de los festivos) de 10:00 a 13:00. El servicio funciona sin cita previa, por lo que para ser atendido basta con presentarse en el consistorio en el horario establecido.

Además de ofrecer asesoramiento sobre cualquier cuestión relacionada con el consumo en el propio ayuntamiento, la Asociación de Consumidores de Navarra Irache ofrece charlas y coloquios sobre los principales temas de interés que afectan al consumidor, como el que ofrecieron el pasado 11 de mayo en Artigune 3 (Nuevo Artica) sobre cómo ahorrar la factura de la luz.



## Galdetu gasari eta argiari buruz dituzun zalantzak Kontsumitzailearen Bulegoan

Udazkenaren etorrerarekin eta, argiaren nahiz gasaren prezioaren igoera etengabea dela ikusirik, jende askok zalantzak ditu bai tarifei buruz, bai merkatuan dauden alternatibei buruz. Zalantzak argitzeko aukerarik onenetakoa Iracheko Kontsumitzailearen Bulegora jotzea da, 20 urtetik gora baitarama lanean Berriobeitiko Udalarekin. Ricardo Areta erreklamazio eta zalantza guztiei erantzuteko ahokulari juridikoa da, eta kasuak ere kudeatzen ditu. Udaletxean bertan hartzen du jendea hilabete bakoitzeko bigarren eta azken astelehenean (jaiegunetan izan ezik), 10:00etatik 13:00etara. Ez da aurrez hitzordurik eskatu beharrik; beraz, aski da udaletxean ordutegi horretan ager-tzea.

Kontsumoari loturiko edozeren gaineko aholkularitza udaletxean bertan emateaz gain, Nafarroako Kontsumitzaile Elkarteak hitzaldiak eta solasaldiak eskaintzen ditu kontsumitzailea ukitzen duten gai nagusiei buruz. Horietako bat, adibidez, Artika Berriko Artigune 3n eman zen, joan den maiatzaren 11n, argi-fakturan nola aurreztu azaltzeko.















Zendearen eguna ⋮ Día de la cendea





